

**FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUA
ETORKIN ETA ERREFUXIATUEN
2018ko MUNDU JARDUNALDIRAKO**

***«Etorkin eta errefuxiatuei
harrera ona egin, babesa eman, sustatu eta gizarteratu»***

Senide maiteok:

«Bertako bat bezala, zuetako bat bailitzan, hartuko duzue etorkina eta zeuen burua bezala maitatuko, etorkin izan baitzineten zeuek ere Egipton. Neu naiz Jauna, zuen Jainkoa» (Lb 19, 34).

Nire aitasantutzaldiko lehen-urteetan, behin baino gehiagotan adierazi izan dut, gerra, pertsekuzio, naturazko hondamen edota pobreziatik iheska dabilen hainbat etorkin eta errefuxiatuaren egoera tristeak ematen didan nahigabea. Gure denboraren ezaugarria da hori inondik ere eta, 2013ko uztailaren 8an nik Lampedusa Irlara egindako ikustaldiaz geroztik, gertaera honen irakurketa egiten saiatu naiz, Espiritu Santuari argia eskatuz. Giza Garapen Osorako Erakunde berria sortu nuenean, berorren sail berezi bat –aldi batean nik neuk zuzendu nuen sail berezi bat– etorkin, lekuz kanpoko, errefuxiatu eta emakume-trafikoaren biktimekiko Elizaren arduraren adierazgarri izatea nahi nuen.

Gure atea jotzen duen kanpotar bakoitza Jesu Kristorekin topo egiteko egokiera da, bat egiten baitu hark harrera ona egiten zaion edota arbuaiatua den atzerritarrarekin, historiako edozein alditan (ik. Mt 25, 35. 43). Etorkizun hobearen bila bere sorterrria uztera behartua den gizaki bakoitza, Elizaren ama-arduraren gomendio uzten du Jaunak. [1] Ardura hau migrazio-esperientziako etapa bakoitzean zehaztu behar da: irteeratik hasi eta ibilaldi osoan zehar, eta iritsieratik itzulera arte. Erantzukizun handia da hau eta Elizak fededun guztiekin eta borondate oneko gizon eta emakume guztiekin batean bete nahi du; guztiok gaude –bakoitza bere ahalmenen neurrira– gaur egungo migrazioek jartzen dizkiguten era askotako erronkei eskuzabaltasunez, agudo, jakinduriaz eta asmo-bikaintasunez erantzutera deituak.

Honi dagokionez, «elkarrekiko gure erantzuna lau aditz erabiliz adieraz genezake: harrera egin, babes eman, sustatu eta gizarteratu». [2]

Gaur egungo egoera kontuan izanik, *harrera egiteak*, lehenik, etorkin eta errefuxiatuak helburuko herrialdera era seguruan eta legez sartu ahal izateko ahalbideak zabaltzea esan nahi du. Hori dela eta, desiragarria litzateke erabaki zehatza hartzea, bisa-agiriak emateko erak gehitu eta errazteko giza arrazoiengatik eta familiak elkartu daitezten. Aldi berean, herrialde gehiagok babes pribatuko nahiz erkidegoko egitarauak prestatzea itxaro dut, eta korridore humanitarioak zabaltzea errefuxiatu ahulagoentzat. Komenigarri litzateke, gainera, aldi baterako balio duten bisa-agiri bereziak izatea, liskar-egoeretatik inguruko herrialdeetara iheska doazen pertsonentzat. Taldeka eta apeta hutsez etorkinak eta errefuxiatuak kanpora bidaltzea ez da konponbide egokia, batez ere pertsonaren duintasuna eta oinarritzko giza eskubideak errespetatu ezin dituzten herrialdeetara bidaliak direnean. [3] Berriro azpimarratu nahi dut, etorkin eta errefuxiatuei ostatuleku egoki eta itxurazkoa emateak duen garrantzia. «Toki desberdinetan hasiak dituzte harrera hedatua egiteko programak, eta elkarketa pertsonala erraztu egiten eta kalitate hobeko zerbitzuak eskaintzen dituztela ematen du, eta ondorio hobekak lortzeko bidea dela hori». [4] Nire aurreko Benedikto XVI.a [5] maiteak irmoki adierazi zuen, pertsona dela erdigunea eta ardatza; printzipio honek pertsonaren segurtasuna beti nazioarenaren aurretik jartzera behartzen gaitu. Beraz, behar bezalako heziera eman behar zaie mugetako kontrolaren ardura duten pertsonari. Etorkinek, babes politikoa eskatzen dutenek eta errefuxiatuek dituzten baldintzek segurtasun pertsonala bermatzea eskatzen du, eta oinarritzko zerbitzuak eskaintzea. Pertsona ororen oinarritzko duintasunaren izenean, beharrezko da, nazioko lurraldean baimenik gabe sartzen direnak atxilotu ordez, ahaleginak egitea konponbide egokiak aurkitzeko. [6]

Bigarren aditza, *babesa ematea* etorkin eta errefuxiatuen duintasun eta eskubideen defentsarako egin ohi diren ekintza guztietarako erabili ohi da, nolana hikoia izanik ere beren migrazio-estatusa. [7] Babes honek horien sorterrian izan behar du hasiera; beren herrialdea utzi aurretik informazio egiazkoak eta ziurak eman behar zaizkie, eta babesa eskaini legez kontrako bidaldi-kontratuak saihesteko. [8] Honek jarraipena izan beharko luke, ahal den neurrian, etorri diren herrialdean: etorkinei ziurtatu beharko litzaieke kontsulatu-laguntza egokia izatea, nortasun-agiri pertsonalak beti berekin izateko eskubidea, zuzenbidera jo ahal izateko bidezkoa den egokiera, bankuan kontuak zabaldu ahal izatea, eta bizirik iraun ahal izateko oinarrizko beharrak bermatzea. Etorkinen, babes politikoa eskatzen dutenen eta errefuxiatuen ahalbideak eta gaitasunak behar bezala aintzakotzat hartuak eta baloratuak izanez gero, benetako baliabide izango lirake horiei harrera egiten dieten erkidegoentzat. [9] Horrela, bada, espero dut, zor zaien duintasunez, harrera egin zaien herrialdean aitortuko zaiela askatasunez ibili ahal izateko, lan egiteko eta telekomunikazio-baliabideetarako sarrera izateko eskubidea. Beren sorterrira itzultzea erabaki dutenentzat, lanbide eta sozial alorreko bergizarteratze-egitarauak garatzea komeni dela azpimarratu nahi dut. Haurren eskubideei buruzko nazioarteko Konbentzioak oinarri juridiko unibertsala eskaintzen du adingabeko etorkinen babeserako. Saihestu egin behar da, horien migrazio-estatusa dela eta, nolana hiko atxiloteta-era egitea, eta lehen eta bigarren mailako hezkuntza ohikoa ziurtatu behar zaie. Era berean, adinera heldzean, bertan bizitzen eta ikasketekin jarraitzeko ohikoa den egokiera bermatu behar zaie. Lagunik gabeko edota beren familatik aldentutako adingabeen kasuan, garrantzizko kontua da aldi bateko babes- edota harrera-egitarauak prestatzea. [10] Herritartasun eskubide unibertsalaren arabera, haur guztiei aitortu behar zaie eta agiri bidez egiaztatu eskubide hori, jaiotzako une beretik. Herritar gabetasunean aurkitzen dira inoiz etorkinak eta errefuxiatuak, baina hori erraz saihesta daitekeen kontua da, «nazioarteko zuzenbide-printzipioekin bat datozen herritartasunari buruzko legeen» bidez. [11] Migrazio-estatusak ez luke nazioko osasun-laguntzetarako eta erretiro-sistematarako sarbidea mugatu behar, ezta ordainketen transferentziarako ere sorterrira itzultzen denaren kasuan.

Sustatzeak, funtsean, etorkin eta errefuxiatu guztiei, baita horiei harrera egiten dieten erkidegoei ere, ahalbideak eskaintzeko ahaleginak egitea esan nahi du; ahalbideak eskaini, beren burua pertsonari dagokionez eta Kreatzaileak nahi duen gizarteak izan behar dituen alderdi guztiak gauzatzeko. [12] Alderdi horien artean, bidezkoa den balioa aitortu behar zaio erlijioari; kanpotar guztiei beren fedea aitortu eta ospatzeko askatasuna bermatu behar zaie, dauden tokian. Etorkin eta errefuxiatu askok bere prestakuntza du, eta baloratu eta agiri bidez egiaztatu egin behar zaie era egokian. «Giza lanak, bere izaeraz, herriak elkartzea helburu duen bezala», [13] etorkinak eta errefuxiatuak sozial eta lanbide-alorrean gizarteratzeko ahaleginean egitera animatzen dut, denei –baita babes politikoa eskatzen dutenei ere– lan-aukera bermatzeko, hizkuntza ikasi eta gizarteratze aktiborako ikastaroak eratzeko eta beren hizkuntzan informazio egokia ere izateko. Etorkin adingabeen kasuan, arautua egon behar du laneko jardueran hauen parte-hartzeak, eta neurriak hartu behar dira gehiegikeriak eta arriskuak ekiditeko horien hazkuntza ohikoa izan dadin. Benedikto XVI.ak azpimarratzen zuen 2006an, migrazio-alorrean familia «toki eta baliabide berezia dela biziaren kulturarako, eta balioen integraziorako printzipioa». [14] Ahaleginak egin behar dira, familiako taldea berriro bere osotasunean elkartzen –aiton-amonak, senideak eta bilobak barne–, hori ekonomiaren baldintzen mende utzi gabe. Adimen urriko etorkin, babes politiko eskale eta errefuxiatuei dagokienez, arreta eta laguntza gehiago bermatu behar zaie. Aipagarriak iruditzen zaizkit, herrialde askotan orain arte egin izan diren ahaleginak nazioarteko lankidetzan eta giza laguntzan. Dena den, espero dut, laguntza hauen banaketa egitekoan, kontuan hartuak izango direla garatzeko bidean dauden herrialdeen beharrak –esate baterako, mediku- eta gizarte-laguntzak, baita hezkuntza ere–, errefuxiatu- eta etorkin-talde handiak hartzen baitituzte herrialde horiek; era berean, onuradun bezala hartuak izango direla, espero dut, aipatu herrialdeak, baliabide-eskasia eta ahultasuna nozitzen duten bertako elkarten artean. [15]

Azkeneko aditzak, *gizarteratzeak*, etorkin eta errefuxiatuak tartean izateak sortzen duen kulturarteko aberastasun-aukerari begirutzen dio. Integrazioa ez da «bakoitzak bere nortasun kulturala alde batera utzi eta ahaztera eragiten duen bertakotzea. Alderantziz, bestearrekiko harremanek haren “sekretua” ezagutzera eraman behar dute, hark dituen alde onak onartzeko zabalik egotera eta, horrela, bakoitzaren eta elkarren ezagutza hobea izatera. Ibilbide hau luzea da; gizarteak eta kulturak eratzen eramaten du, eta Jainkoak gizakioi ematen dizkigun mila eratako dohainak nabarmentzera». [16] Arinagoa egin daiteke prozesu hau, baldin eta herritarrek, ekonomiaren eta hizkuntzaren baldintzetatik eta ezohiko araudien bideetatik askaturik, beren buruaren eskaintza egiten badiete, luzarorako etorriak direla erakusten duten etorkinei. Berritot, beharrezko dela, edozein kasutan, elkarganatze-kulturaren alde ahaleginak egitea, kultura-trukerako aukerak ugarituz, integrazio- eta gizarteratze-ariketa onak erakutsiz eta zabalduz, eta tokiko elkarteak integrazio-prozesuetarako prestatzeko egitarauak garatuz. Krisi humanitarioak direla medio, beren herrialdea uztera behartuak aurkitzen diren atzeritarren kasu berezia azpimarratu nahi dut. Pertsona hauek berriro beren sorterrira itzultzea ahalbidetuko dien laguntza egokia behar dute, eta beren herrialdean lanbidean sartu ahal izateko egitarauak.

Eliza, bere tradizio pastoralaren arabera, prest dago, goian proposatu diren ekimen guztiak aurrera eramateko konpromisoa bere gain hartzeko, eta lehenengo izan nahi du hori betetzen. Hala ere, espero diren helburuak bete ahal izateko, ezinbesteko da elkarte politikoaren eta gizarte zibilaren laguntza –hauetako bakoitzaren erantzukizunaren neurrian–.

New Yorken 2016ko irailaren 19an egindako Nazio Batuetako Goi-bileran, munduko buruzagiek argi eta garbi adierazi zuten etorkin eta errefuxiatuen alde lan egiteko borondatea, haien bizia salbatu eta haien eskubideak babesteko, eta mundu-mailan hartu zuten erantzukizun hau elkarren artean. Asmo horretarako, 2018a bukatu aurretik bi hitzarmen global (*Global Compacts*) egin eta ontzat emateko konpromisoa hartu zuten: bata errefuxiatuen alde eta bestea etorkinen alde.

Senide maiteok, hasiak diren prozesu hauen argira, ondorengo hilabeteetan aparteko aukera izango dugu, lau aditz horietan zehaztu nahi izan ditudan ekintza bereziak aurkeztu eta babesteko. Beraz, dei egiten dizuet egokiera guztiak baliatzera, ekintza honetan parte hartuko duten –edota parte hartu nahiko duten– eragile politiko eta sozial guztiekin elkarlanean aritzeko, prozesu honek bi hitzarmen global horiek ontzat ematea izan dezan fruitu.

Gaur, abuztuak 15, Maria Birjina Dohatsuaren Jasokundeko festaburua ospatzen dugu. Jainkoaren Amak erbesteratzearen gogortasuna bizi izan zuen beregan (ik. *Mt 2, 13-15*); Kalbariorainoko bidean lagundu zion maitasunez bere Semeari eta orain zoriontsu da berarekin aintzan. Ama honen otoitzaren baitan jartzen dugu munduko etorkin eta errefuxiatu guztien eta horiei harrera ona egiten dieten kristau-elkarteen itxaropena. Jainkoaren agindurik nagusienaren arabera, ikas dezagula denok besteak, arrotzak, geure burua bezala maitatzen.

Vatikanoa, 2017ko abuztuaren 15a

FRANTZISKO

[1] Ik. Pio XII.a, *Exsul Familia* Apost. Konst., Titulus Primus, I.

[2] «*Migrazioak eta bakea*», Nazioarteko bilerako partaideei eginiko Hitzaldia (2017ko otsailaren 21a).

[3] Ik. *Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen Kontseiluaren 103. Bileran Aulki Santuko Behatzaile Iraunkorrek eginiko Mintzaldia* (2013ko azaroaren 26a).

[4] «*Migrazioak eta bakea*» Nazioarteko bilerako partaideei eginiko Hitzaldia (2017ko otsailaren 21a).

[5] Ik. Benedikto XVI.a, *Caritas in veritate* Gutun entz., 47.

[6] Ik. *Giza Eskubideetarako Kontseiluaren 20. Bileran Aulki Santuko Behatzaile Iraunkorrek eginiko Mintzaldia* (2012ko ekainaren 22a).

- [7] Ik. Benedikto XVI.a, *Caritas in veritate* Gutun entz., 62.
- [8] Ik. Etorkin eta Ibiltarien Pastoraltzarako Aita Santuaren Kontseilua, *Erga migrantes caritas Christi* Irak., 6.
- [9] Ik. Benedikto XVI.a, *Etorkin eta Errefuxiatuen Pastoraltzaz Mundu Biltzarreko Partaideei eginiko Hitzaldia* (2009ko azaroaren 9a).
- [10] Ik. Benedikto XVI.a, *Etorkin eta Errefuxiatuen aldeko 2010eko Mundu Jardunaldirako Mezua; Giza Eskubideetarako Kontseiluaren 20. Ohiko Bileran Aulki Santuko Behatzaile Iraunkorrek eginiko Mintzaldia. Etorkinen giza eskubideak* (2014ko ekainaren 13a).
- [11] Etorkin eta Ibiltarien Pastoraltzarako Aita Santuaren Kontseilua eta *Cor Unum* Aita Santuaren Kontseilua, *Errefuxiatuen eta beharturik lekuz kanpo daudenengan Kristori harrera on egitea* (2013), 70.
- [12] Ik. Paulo VI.a, *Populorum progressio* Gutun entz., 14.
- [13] Joan Paulo II.a, *Centesimus annus* Gutun entz., 27.
- [14] Benedikto XVI.a, *Etorkin eta Errefuxiatuen aldeko 2007ko Mundu Jardunaldirako Mezua*.
- [15] Etorkin eta Ibiltarien Pastoraltzarako Aita Santuaren Kontseilua eta *Cor Unum* Aita Santuaren Kontseilua, *Errefuxiatuen eta beharturik lekuz kanpo daudenengan Kristori harrera on egitea* (2013), 30-31.
- [16] Joan Paulo II.a, *Etorkin eta Errefuxiatuen aldeko 2005eko Mundu Jardunaldirako Mezua*.

URTEAN ZEHARREKO 2. IGANDEA

Agurra

Gure onerako gizakien aurrean agertu zen Kristo izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Joan ziren Eguberri egunak eta ospatu genuen gizon egin zen, haur txiki egin zen Jainkoa. Orain liturgiako Urtean Zeharreko aldiari heltzen diogu. Eta igande honetan Etorkin eta Errefuxiatuen Mundu Jardunaldia dugu. Elizak eskatzen digu, hazten ari den eta “aldi honetako ezaugarri” den gai honen inguruan hausnartzeko eta otoitz egiteko egun bat eskain dezagun.

Zabal diezaiogun bihotza bere Hitzaren bidez, Eukaristian eta senideengan presente egiten zaigun Jainkoari, eta gaur, bereziki, beste toki batzuetatik etorri direnengan; pertsona hauek ere gure gizartea osatzen dute eta askok gure Eliza ere bai.

Damu-otoitza

Jainkoaren Hitza entzun eta Eukaristiako Ogia elkarbanatu aurretik, eska dezagun apalki gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, ahulen babes eta indar-emaile zarena: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, mundu hobe baten alde ari direnei itzaropena eskaintzen diezuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, familia bakar batean biltzen gaituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure esku dituzu zero-lurrak;
entzun bihotz onez zeure herriaren eskariak
eta eman zeure bakea gure egunotan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak Samueli dei egin zion bezala eta Jesusek ikasleak Bildu zituen moduan, guri ere jarraipenerako deia egiten digu. Izan gaitzela gai Jainkoren deia onartzeko eta senideengan eta aldian aldiko ezaugarrietan Bera aurkitzeko.

Homiliarako argibideak *(Ikus Aita Santuaren mezua)*

Harrera ona egin, babesa eman, sustatu eta gizarteratu

Itsu eta gogor bihurtzen ari garela diote. Ez da harritzekoa: mugikorra eskuan dugula ibiltzen gara kalean, noraezean bezala, musika entzunez, “geure kontura”, eta ez gara gure inguruan gertatzen denaz jabetzen, ez diogu ondoan igarotzen denari begiratzen. Entzun-gogor, indibidualista edota axolagabe? Berdin dio: geure mundutxoan itxiegi bizi gara. Frantzisko Aita Santuak sarritan gogoratzen digu hau, “axolagabekeriaren globalizazioaz” mintzatzen denean.

Orain 3.100 urte ez zen mugikorrik. Samuel izeneko haur batek, lokartzeaz zegoela, zerbait entzun zuen (Samuel izenak hebreeraz “Jainkoari entzuten diona” esan nahi du)

Samuel altxa egin zen, arin joan, behin eta berriz galdetu eta konturatu zen Jainkoa zela deika ari zitzaiona, egiteko bat emateko. Bai eredu ederra guretzat: badira deiak, isilik, belarriak eta begiak ondo zabaldua gaudenean bakarrik entzuten direnak.

Gaur, oso agerikoa den errealitate baten aurrean jartzen gaitu Elizak: gizadiaren mugikortasunaren aurrean. Asko dira bere herrialdean bertan, gerra naiz aldaketa klimatikoa dela eta, tokiz mugitu behar izan dutenak. Beste 280 milioi pertsona bere jatorrizko herrialdetik kanpo bizi da, 60 milioi, errefuxiatu eta asiloa eskatu dutenak kontatuta. Gizadiarentzat erronka handia da hau eta fededunontzat “aldian aldiko ezaugarri” gertatzen da, Eliza katoliko, unibertsal, izateko deia.

Lau aditzekin erantzuteko gonbidapena luzatzen digu Frantzisko Aita Santuak. Kristauontzat da gonbidapena, baita gogo oneko gizaki guztientzat ere eta estatu ezberdinetako gobernarietzat ere bai, noski.

1. **Harrera ona egin**, hau da: “etorkin eta errefuxiatuak helburuko herrialdera era seguruan eta legez sartu ahal izateko ahalbideak zabaltzea”. Eta hori ez onginahi hutsez “Pertsona ororen oinarrizko duintasunaren izenean” baizik.
2. **Babesa eman**, jatorrian, bidaian, helburuko herrialdean. Eta bereziki, babestu haurrak eta zaugarrien direnak
3. **Sustatu**, alegia “etorkin eta errefuxiatu guztiei ahalbideak eskaini, beren burua pertsonari dagokionez eta Kreatzaileak nahi duen gizarteak izan behar dituen alderdi guztiak gauzatzeko; horien artean, erlijioa”
4. **Gizarteratu**, hots, “elkar aurkitzearen kulturari toki egin. Besterekin harremana izateak berekin behar du ari bihotza zabaltzea bere alderdi onak onartuz”.

Orain dela gutxi, etorkinen pastoraltzaren europako arduradunekin izandako topaketan, hitz argiak esan zizkien Frantzisko Aita Santuak: *Anai-arreba maiteok: ez dizuet ezkutatuko Europako zenbait herrialdetan dauden intolerantzia, bereizkeria eta xenofobia ezaugarriek sortzen didaten kezka. Sarritan bestearekiko, ezberdinarekiko, atzerritarrarekiko mesfidantzak eta beldurrak sortzen ditu jarrera horiek. Gehiago arduratzen nau, Europako elkarte katolikoak, jatorriko nortasun kultural eta erlijiosoa babesteko "betebegar moral" bateko jarrera defentsibo eta bazterkeriazko horietatik salbu ez daudela ikusteak. Jesu Kristoren salbamen mezua unibertsala dela eta kultura guztietako gizon eta emakumeentzat dela sinetsi zuten misiolarien "migrazio" jarrerari esker zabaldu zen Eliza munduko herrialde guztietan. Elizaren historian ez dira falta izan bazterkeria eta norbere kulturaren itsu ezkutatzeko tentaldiak, baina Espiritu Santuak beti lagundu izan digu horiek gainditzen, bata bestearikiko etengabeko jarrera irekia bermatuz, hori delako hazteko eta elkar aberasteko egiazko aukera. Ziur naiz, Espiritua gaur ere laguntzen ari zaigula konfiantzazko jarrera izan dezagun, edonolako hesi garaitzeko eta edozein harresiren gainetik joateko.*

Jesu Jaunak misio honetarako behar gaitu. Deika ari zaigu Andres eta Joan eta Hamabiak deitu zituen bezala. Zerk erakarri zituen? Bere hitzaldiek? Ez, bereziki haren bizitzak: "Etorri eta ikusi". Jesusengan, harrera zerbait unibertsala bihurtzen zuen koherentzia eta testigantza aurkitu zuten Hamabiek. Egun, Eliza sinesgarri izango da, Jainkoaz mintzatuko da, katolikoa, unibertsala den neurrian; harrera ona egin, babesa eman, sustatu eta gizarteratzen duen neurrian.

Onar dezagun ausardiaz, fedez eta apalki mundu berria eratzeko jasotzen dugun deia.

Jainkoaren herriaren otoitza

Seme-alaben konfiantzaz, Jainkoak beti entzuten gaituen itxaropenez, zuzen diezazkiogun gure eskariak:

—Eliza beti harrera oneko etxe izan dadin. Txikiek, ahulek, aintzakotzat hartuak ez direnek, kanpotik etorritakoek, aurki dezaten gure elkarteetan Jainkoaren maitasunaren testigantza ona. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gure gizarteak erraztu dezan guztien giza-garapena, garapen-soziala, lanekoa, familiartekoa, pertsona eta elkarte bakoitzaren erlijio alderdia bizi ahal izatea ere erraztuz eta bideratuz. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gure elkarbizitzan elkar aurkitzearen kultura landu dezagun eta beste toki batzuetatik etorri direnekin harremana erraztu dezagun, besteen ona ezagutu eta jasotzean aberastuak gerta gaitezen. Eska diezaiogun Jaunari.

—Hemen gaudenoi Jainkoak eman diezagula axolagabekeria ez murgiltzeko grazia, zuzengabea denarekin ez ohitzeko eta dena normala dela ez pentsatzeko argitasuna. Eska diezaiogun Jaunari

Zure esku, Aita, gure gogo eta eskariak. Egizu, gure jokabidea bat etor dadila eskatu dugunarekin. Sutu gugan zure Erreinua gauzatzeko gogoia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengo otoitza

**Isur iezaguzu, Jauna, zeure maitasun-espirtua,
zeruko ogi bat beraz janaritu gaituzunok
zeure maitasunean bat egin gaitzazun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**